



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure taldeak Limahana izena du, talde hau osatzen dugun partaideak Ane Martin, Izaskun Martinez, Maialen Astarloa eta Garazi Berrio-otxoak gara, Ibaizabal ikastolako haur hezkuntzako ikasleak izanik. Proiektu honetako ideia garatzeko gure inguruko eta egunerokotasuneko beharretan oinarritu gara. Horrelako zerbitzu batek familien arteko harremana hobetzeaz gain, haur hezkuntzako ikaskuntzarentzat onurak ekarri ditzakeelako. Haurrek hezkuntza egokia bat, garrantzitsua da beraien inguruarekin eta beraien buruarekin erlazio on bat izatea, hori dela eta uste dugu gure zerbitzuak arlo horretan laguntzen duela.

Gure taldeak sortutako zerbitzuak *Fametxtxe* du izena, zerbitzu hau familia eta haurren arteko harremana sakondu eta bermatzeko hainbat ekintzaz osatuta dago. Ikastetxetik kanpo zein ikastetxean bertan dauden ekintza gehienak haurrentzat bakarrik bideratuta daudenez uste dugu garrantzitsua dela horrelako espazio bat erabiltzeko aukera ematea. Proiektuan zehar ekintza desberdinak eskaintzen ditugu, hilabetearen eta beharren arabera moldatzen joango garenak.